

PRENTSA OHARRA: 2019.11.29

Hamaika ekintza egingo dira nazioartean Euskararen Eguna ospatzeko

-Euskara eta euskal kultura ospatzeko ekitaldiak antolatu dituzte, besteak beste, Txileko Santiago, Boisen, Mexiko Hirian, Poznanen, Helsinkin, Parisen, Frankfurten, Chicagon, Bartzelonan, Berlinen edota Konstantzan.

-Ekimen hauek, Etxepare Euskal Institutuak munduko 18 herrialdetako 35 unibertsitateetan sustatzen dituen euskara eta euskal kultur irakurletzek antolatu dituzte.

Azken urteotako ildo jarraituz, **Euskararen Nazioarteko Egunean** –abenduaren **3an**- gure hizkuntzaren oihartzuna Europa eta Ameriketako zenbait txokotara iritsiko da **Etxepare Euskal Institutuaren nazioarteko irakurletza sarearen** baitan antolatutako kultur programen bidez.

Irakurleak, Euskal Herrikan kanpoko unibertsitateetan, gradu edota graduondokoa ikasten ari diren ikasleei euskara eta euskal kultur ikastaroak eskaintzen dizkieten irakasleak dira. Etxepare Euskal Institututik abiatutako eta kudeatutako programa bat da, atzerriko unibertsitateekin elkarlanean; eta irakasle guzti horiek eta euren ikasleek osatzen dute irakurletza sarea. Atzerrian, 1.800dik gora ikasle ari dira momentuan euskara eta euskal kultura ikasten, 29 irakurlearen eskutik; eta horietako askok hartuko dute parte ekitaldiotan.

Irakurleek, euskara eta euskal kultura klaseak emateaz haratago doan lana egiten dute: euskal bizimodu eta tradizioen eredu eta sustatzaile dira atzerrian. Irakurleek, Etxepare Euskal Institutuaren sustapen eta laguntzarekin, **euskal kulturarekin lotutako ekintzak** antolatu ohi dituzte urtean zehar, Euskal Herrian garrantzitsuak diren efemerideak, pertsonaiak edota ohiturak ezagutarazteko helburuarekin.

Hala egin da ere, azken urteotan, euskararen nazioarteko egunarekin. Aurten, hamaika hiritan antolatu dituzte euskal kultura edota hizkuntzarekin erlazionaturiko izaera ezberdineko ekintzak. Txileko Santiago, Boise, Mexiko Hiria, Poznan, Helsinki, Paris, Frankfurt, Chicago, Berlin, Konstantza eta Bartzelona izango dira hiri horiek, eta ekintzak azaroaren 25etik hasita abenduaren 16ra bitarte garatuko dira.

Bartzelona izan da ekintzekin hasten lehena: bertsolaritza, feminismoa eta film laburrak izan dira egitarauaren protagonista azaroaren 25etik 29rako astean. Oraindik ere azaroan, **Txileko Santiago** munduko txoko ezberdinetako sukaldaritzari lotutako ekimena antolatuko dute hilaren 30ean, euskal gastronomiari garrantzia berezia emanaz. Amerikan jarraituz, hurrena Estatu Batuetako **Boise** hirian izango da: abenduaren 2an euskal zinema izango dute, eta 3an, euskal gaien inguruko argazkilaritza txapelketa baten finala.

Mexiko Hirian ere izango da ekintzarik; euskal ipuingintzan oinarritutako antzerki rallya antolatu dute, azaroan zehar garatu dena, eta euskararen egunean bertan ospatuko dute rallyaren finala. Egun berean, **Chicagon**, euskara eta feminismoa ardatz dituen hitzaldia izango dute eta, ostera, pintxo-jatea. Halaber, **Berlinen** ere ekitaldi interesgarria antolatu dute euskararen egunean, arratsaldean: euskara ikastaro laburra eta poesia-irakurketa izango dira, jatekoaz eta edatekoaz gain. Alemanian jarraituz, **Konstantza** hirian euskararen txokoa antolatuko dute Unibertsitatean, euskal hizkuntzari eta kulturari buruzko informazioa banatuz eta pintxoak eskainiz; baita film emanaldia ere.

Era berean, **Helsinki**, euskararen egunaren ospakizun jaialdia egingo dute abenduaren 5ean, herri kirolak, euskal dantza, kontzertua eta beste hainbat tradizio praktikan jarritz. **Parisen**, dokumental baten proiektzioa eta osterako euskal kantagintzari buruzko hitzaldia antolatu ditu irakurletzak, abenduaren 6rako; baita bertsolaritza-tailer praktikoa ere. Azken-aurreko ekintza **Frankfurten** izango da: euskarazko rapari buruzko hitzaldi musikatua egingo dute, eta ostera praktikan jarri. Amaitzeko, Poloniako **Poznan** hirian, batetik, euskal gaien buruzko erakusketa bat eta film laburren emanaldiak izango dira abenduaren 3an; eta, hilaren 16an, bestetik,

hizkuntza eta kolektibo gutxituetako ikus-entzunezko eduki digitalei buruzko mahai ingurua.

Ikusi programa osoa jarraian.

EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA 2019

BARTZELONA (Katalunia)

Universitat Autònoma de Barcelona (UAB), Universitat de Barcelona (UB) eta Euskal Etxea

Antolatzaileak: Andrea Sanz Zarandona, UAB-ko eta UB-ko Euskara eta Euskal Kultur Irakurlea; UAB-ko Minor en Estudios Bascos; UB-ko Estudios Bascos; Bartzelonako Euskal Etxea; Bartzelonako Hizkuntza Eskola Ofiziala.

Azaroak 25

Universitat de Barcelona

19:00 Hitzaldia: **Maialen Lujanbio**, “**Bertsolarisme i Feminisme**”. Ostean bertso-saioa.

Azaroak 26

Universitat Autònoma de Barcelona

13:00 Hitzaldia: **Maialen Lujanbio**, “**Bertsolarisme i Feminisme**”. Ostean bertso-saioa.

Azaroak 28

Universitat de Barcelona

17:30 Film laburren emanaldia. **Kimuak** programaren 2019ko film laburrak: **Artiko** (Josu Venero, Jesus Mari Lazkano), **El Infierno** (Raúl de la Fuente), **Labo** (Jesus M^a Palacios), **Lursaguak: escenas de vida** (Izibene Oñederra), **Mateoren Ama** (Jose M^a Goenaga, Aitor Arregi) eta **Medvedek** (Ainhoa Gutiérrez del Pozo).

Abenduak 3

Bartzelonako Euskal Etxea

18:00 **Mintzodromoa**. Ekitaldian mintzobira, pika-pika, photocall-a, karaokea eta sari-banaketa ere egingo dira.

SANTIAGO (Txile)

Ekhaya Akademia

Antolatzaileak: Mireia Orbegozo Zigarán, Txileko Unibertsitateko eta Pontificia Universidad Católica de Chile Unibertsitateko euskara eta euskal kultura irakurlea; Ekhaya akademia; EcoBazar.

Azaroak 30

Ekhaya jaialdi gastronomikoa - La Casona Hostel

12:00 **ate irekiera**

13:00 Ekhayaren **aurkezpen hitzak, bideoa eta ikasle baten hitzak**

13:15 **Azalpen-ikastaroa Xabier Zabalaren eskutik: “Zer da janaria hutsean prestatzea?”**

13:35 **Ekhaya Gourmet Azokaren irekiera**

13:55 **Ekhaya Azoka**

14:30 **Euskal aurkezpen artistikoa: Aritz Zamalloa trikitilaria.**

14:45 **Aurkezpen artistiko kultur-anitzak (dantza)**

15:20 **esker hitzak eta itxiera**

15:30 **Azken musika emanaldia**

BOISE (AEB)

Boise State University

Antolatzaileak: Ziertza Gandarias Beldarrain, Boise State University-ko euskara eta euskal kultura irakurlea; Boise State Unibertsitateko Munduko Hizkuntzen Departamentua; Basque Museum and Cultural Center.

Abenduak 2

Boise State University SMASH Building

18:00 Film emanaldia: **Soinujolearen semea**, Fernando Bernués.

Abenduak 3

Boise State University Student Union Building, Art Gallery

18:30 **“Basque places of Idaho”** argazki erakusketaren irekiera.

Idahoko euskal lekuen inguruko argazki-lehiaketa bat jari zuen martxan unibertsitateak; partaideek argazkiak bidali behar zituzten eta, abenduaren 1etik 15era bitarte, irabazleak

ikusgai jarri dituzte Student Union Building-eko arte galerian. Abenduaren 3an, euskararen egunarekin bat, erakusketa horren irekiera ekitaldia egingo da, jatekoarekin lagunduta.

MEXIKO HIRIA (Mexiko)

Universidad Nacional Autónoma de México (UNAM)

Antolatzaileak: Haizea Elizondo Gorroño, UNAM-eko euskara eta euskal kultur irakurlea; Literatura Dramatiko eta Antzerki Eskola (UNAM); Filosofia eta Letren Fakultatea (UNAM); Liburutegi Nagusia (UNAM) eta Hizkuntza, Linguistika eta Itzulpengintza Eskola (UNAM).

Abenduak 3

Santa Catarina Antzokia

19:00 **Euskal Antzerki motzen Rallya: Finala.**

Eider Rodriguez idazlearen *El cumpleaños* eta *No notas nada raro* ipuinetan oinarrituta, antzerki lehiaketa antolatu zuen UNAM-ek azaroan. Hilabeteren ondoren, epaimahai batek 3 antzezlan hoberenak hautatu ditu, eta abenduaren 3an ikusi ahal izango dira ekitaldi honetan, sari banaketa egiteaz gain.

Eider Rodriguezen bisita + solasaldia. Idazleak FIL Guadalajara azokara egin behar duen bisita aprobetxatuko du eta hiriburutik pasako da final honetan egoteko.

CHICAGO (AEB)

University of Chicago

Antolatzaileak: Paula Motrico San Emeterio, Chicagoko Unibertsitateko euskara eta euskal kultur irakurlea; Chicagoko Unibertsitateko Giza Zientzien Saileko Linguistika atala eta Hizkuntza Erromantze eta Literatura atala.

Abenduak 3

University of Chicago, Regenstein room

12:30 Hitzaldia: **Laura Mintegi, “Women in Basque world and Basque in women’s world”**, euskaraz eta feminismoaz.

Hitzaldiaren aurretik **pintxoak** egiteko aukera egongo da. Sortutako pintxoei euskal kulturako emakumeen izenak jarriko zaizkie.

BERLIN (Alemania)

Soulcat taberna

Antolatzailea: Unai Casas, Berlingo Freie Unibertsitateko euskara eta euskal kultur irakurlea.

Abenduak 3

Euskararen egunaren ospakizuna Soulcat tabernan

18:00 Crashkurs, **euskara ikastaro laburra**; **poesia irakurketa** ikasleekin; **jatekoa, edatekoa eta musika**.

KONSTANTZA (Alemania)

Konstanzako Unibertsitatea

Antolatzailea: Maialen Watzinger, Konstanzako Unibertsitateko euskara eta euskal kultur irakurlea.

Abenduak 3

15:00 **Euskararen txokoa**. Euskarari eta euskal kulturari buruzko informazioa banatuko dute Unibertsitateko txoko honetan, eta jatekoa eta edatekoa egongo da.

17:00 **Film emanaldia**. *Bertsolari*

HELSINKI (Finlandia)

Harjun Nuorisotolo aretoa

Antolatzailea: Araitz Claramunt Oregi, Helsinkiko Unibertsitateko euskara eta euskal kultur irakurlea.

Abenduak 5

Euskal Jaia Helsinkin – Harjun Nuorisotolo aretoa

18:00 Euskal tradizioak praktikan: **pintxoak, herri kirolak, dantzak** etab.

Azaroan zehar irakurlearen bitartez euskal praktika ezberdinei buruzko tailerrak garatu ziren; abenduaren 5eko jaialdi honetan, tailerretan ikasitakoa praktikan jartzeko aukera izango dute ikasleek.

20:00 Kontzertua: **Gozategi**.

PARIS (Frantzia)

Université Sorbonne Nouvelle

Antolatzailea: Maitena Duhalde de Serra, Sorbonne Nouvelle Unibertsitateko euskara eta euskal kultur irakurlea.

Abenduak 6

Chanson à texte et improvisation chantée: regards croisés

Parisko Sorbonne Nouvelle Unibertsitatean

14:00 Tailer praktikoa eta eztabaida: **Miren Ibarluzea. Bertsolaritza.**

EHUko irakasle eta ikertzailearen eskutik, lehenbizi *What is Bertsolaritza?* film laburra ikusiko da; ostera, horretan oinarrituta, bertsolaritza tailer praktikoa bat egingo da; eta, amaitzeko, ikasleekin batera euskal kantagintza eta bertsolaritzaren arteko konparaketa landuko da.

16:00 Dokumental emanaldia: **Estitxu** (Franck Dolosor) eta osteko hitzaldi-eztabaida **Franck Dolosor** kazetariarekin **Euskal Kantagintzari** buruz.

FRANKFURT (Alemania)

Goethe Unibertsitateit

Antolatzailea: Larrantz Lezameta Morales, Goethe Unibertsitateko euskara eta euskal kultur irakurlea.

Abenduak 11

Rapa Euskaraz: La Basu taldearen hitzaldi musikatua

Goethe Unibertsitateko Juridicum aretoan

17:00 La Basu taldearen **aurkezpena** (Elena caballero, La Basu rap abeslaria, eta Alazne Gutierrez abeslaria) eta **euskal rapari buruzko hitzalditxo**.

Rap Tailerra

Praktikan jarri: ikasleekin rapa abestu.

POZNAN (Polonia)

Adama Mickiewicz Unibertsitatea

Antolatzailea: Esther Zarrua Isasi-Isasmendi, Adama Mickiewicz Unibertsitateko euskara eta euskal kultur irakurlea.

Abenduak 3

Adama Mickiewicz Unibertsitateko Collegium Novum eraikinean

9:00 **Euskara eta euskal kulturari buruzko erakusketa.**

Unibertsitateko ikasleek, Erasmuseko bost euskal ikasleren laguntzarekin, euskal gaietako buruzko kartelak egingo dituzte: euskal mitologia, euskararen sorrera, bertsolaritza... Lau hizkuntzatan azalpenak jarri (euskara, gaztelania, poloniera eta ingelesa).

15:00 **Kimua** programako film laburren **emanaldia.**

Edizio ezberdinetako film laburrak ikusiko dituzte: **Zela Trovke** (Asier Altuna), **Txotx** (Asier Altuna, Telmo Esnal), **Zeinek gehiago iraun** (Gregorio Muro) eta **Beerbug** (Ander Mendia).

Ostean, **solasaldia** polonieraz, **Kaisa Migros** poloniar euskaldun eta Gdansk-eko Unibertsitateko irakaslearen gidaritzapean.

Abenduak 16

Poznango Muza Kino zinema aretoan

19:30 **Mahai-ingurua: kolektibo minorizatu edota isilduek egindako eduki digitala.**

Partaideak: *Puntu Koma* euskal web seriearen egileak, Outfilm plataforma poloniarreko arduradunak, LGTBIQ+ kolektiboko ordezkari bat.

Ostera, **Baskijski** poloniarrek euskara ikasteko online **plataformaren aurkezpena**, Alicia Jankowiak-en eskutik.

Info+

Mikel Lasa
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera / Andre Zigarrogileak plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus

www.etxepare.eus